



4 a 15,50
3 a 16,00
3750

Ondarrabi'ko Parrokiti 'k Ama Guadalupekoa'ren

Elizara bitartean, 1904' garren urtako

Mayatzaren zortzian, kantatu ziran itzneurtuak.

Eskaritxoa.

Zure Sortzetik mundura ziñan
Argi beraren begiya,
Aita Eternoak autaturikan
Zeruko Erregiñ aundiya:
Eskeaz dago biyotzetikan
Gogotsu Euskal Erriya.
Bear danean lagun dezazun
Guadalupeko Maria.

I

Garbitasunez apaindutako
Ama on errukitsuba,
Erreguz gaude izan dezazun
Gu eri oyen kontuba:
Etzaigun gerta inozenziaz
Engañagarri munduba,
Galtzen degula betiko asko
Baliyo duen zeruba.

III

Arrantzale ta baserrikoak,
Erriko eta artzaizak,
Lepoz arturik prozesiyoan
Zaramazkite guziyak:
Erregutubaz zabalduzteko
Beren gañetik graziyak,
Alkar maiteaz gozatu ditzan
Euskal Erri guztiyak.

II

Euskal Erriya guztiz noblea,
Leyal, balore aundikoa,
Oyez gañera beti fiela
Erri zorionekoa:
Eskeaz dago aberats pobre
Ama Guadalupekoa,
Beren premiyan ez faltatzeko
Zugan duten anparoa.

IV

Zeru goyeen berezi eta
Guadalupeko Señora,
Etorri ziñan señalatuba
Gure onean mundura:
Eskeaz gaude gorde gaitzatzun
Laja gabe pekatura,
Negar leku au utzitakoan
Joateko zure ondora

(On Francisco Artola)

Ondarrabi - Mayatza - 1950.